



Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko nazioarteko eguna

2015eko azaroaren 25a

Nazio Batuen Batzar Orokorrek azaroaren 25a izendatu zuen Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna. Ospakuntza honetan, tinkotasun osoz arbuia nahi ditugu emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), eta, aldi berean, gaitzetsi nahi ditugu sexismoaren bide guztiak, forma leun eta normalizatuak ere bai, hala nola rol estereotipatuak sexuen arabera banatzea edo emakumeak ikusezin bihurtzea bizitzaren esparru askotan. Egiturazko arazo sakon bat dugu, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen dena, eta berdintasun politikaren bitartez borrokatu behar duguna, zalantzarik gabe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituretan bertan txertaturik dago: aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumei eta gizonei, eta, gaur-gaurkoz, pertsonen askatasuna mugatu egiten da, sexuen arabera identifikazioaren neurrian. Gure ahalegina izan behar da gizarte libreago bat eraikitzea, pertsona guztiak aske izan daitezen nahi duten bezalakoak izateko, aukera izan dezaten gaitasun guztiak garatzeko, eta giza eskubideen arabera berdintasunezko eta errespetuzko tratu bat jaso dezaten.

Pertsona guztientzako tratu onak bermatu behar ditu gizarteak, hori da gure helburua: ez bakarrik emakumeen aurkako indarkeriari aurre egin behar zaio, baizik urrats bat aurrera egin behar dugu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.

Bide horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere konpromiso tinkoa azaldu nahi du, gipuzkoar herritarren iritziarekin bat eginda, gaur bertatik Gipuzkoa izan dadin emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko lurraldea.

Ziur gaude gure ekimena ezin datekeela mugatu indarkeria salatzeke izendatutako egun honetara bakarrik. Nahi dugu eta behar dugu egun hau izatea urteko egun guztien atariko. Gizarteak hala behar du eta hala eskatzen digu.

Jabetzen gara gure buruari ezartzen diogun xedea arnas luzekoa dela eta zaila izango dela guztiz lortzea, baina, aldi berean, inoiz baino beharrezkoago dugu. Hori da aldarrikatzen dugun bidea, gure gizartea eraldatzeko bidea, emakumeen aurkako indarkeriatik libre egingo gaituen bidea.

Gure helburua da, gaur eta hemen, gizarte mobilizatzea. Herritarrei dei egin nahi diegu berdintasunaren aldeko konpromisoak hartzera, bakarka eta taldeka, urtearen egun guzti-guztietan, eta azaroaren 25ean izango diren ekitaldietan gogotsu parte hartzera. Nahi genuke ekitaldi hauek izatea, lehenik, indarkeriaren biktima guztiak babesteko gune, eta, ondorioz, gure gizartearen eraldaketaren erna-muin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bidean.